

Telefonoz

- Bittor : Alo, Pantxika ? Ni naiz, Bittor. Ongi zara ?
- Pantxika : Bai, eta zu ?
- Bittor : Ez sobera, ez. Biharko, badugu zerbait egiteko ?
- Pantxika : Bai, 102. sekuentziako 4. ariketa.
- Bittor : Kaka zaharra! Liburua ikastolan ahantzia dut. Alta ez badut egiten irakasleak erasiatuko nau. Aste honetan bigarren aldia da liburua ahanzten dudala. Ai, ai, ai, ai, ai !
- Pantxika : Lasai zaitetz ! Beharbada irakaslea ez da ohartuko !
- Bittor : Ba, tirrit ! Dudan xantzarekin segur naiz eni galdeginen dizkidala erantzunak. Berriz ere petzero izanen naiz.
- Pantxika : Bihar goizean, heldu orduko harengana joan zaitetz eta galda iezaiozu gelan sartu aitzin egiten ahal dituzunetz. Zure nahikaria ona ikusiko duelarik ez zaitu erasiatuko.
- Bittor : Ez naiz menturatzen. Gainera ikastolara lehenago joan behar nuke eta hortako galdegin behar nioke aitari goizago eraman nazan. Horrela eginez xintximariak entzunen nituzke ! Ai, ai, ai ! Gaixo ni !
- Pantxika : Alta aterabide bat atzeman behar duzu ! Ez duzu arratsa zinkurinka pasatuko ! Hara zer eginen dugun : bihar goizean ene etxetik pasa zaitetz eta ene liburua utziko dizut. Xokoño bat atzemanen duzu, bai, haurtzaindegian zure lanen egiteko.
- Bittor : Bai, arrazoi duzu. Hobe dut aitaren haserrea jasanik irakaslearena baino. Gainera aitak ez dit lan gehigarririk emanen bederen. Are ! Ongi lan egin eta bihar artio !
- Pantxika : Bai zuri ere eta kuraia on !

Jokalariak : Bi ikasle (Bittor eta Pantxika)
Autorea :
Autorea : Kattalin Sallaberry
Argitaratzailea : Ikas
Argitaratze data : 2010/12/21
Maila : 3. ziklotik goiti